

Kontseiluburuaren informazioa
Nafarroako Eskola Kontseiluko BATZORDE
IRAUNKORRarentzat
(2025eko irailaren 1etik)
2025eko urriaren 8ko saioa

1. Kontseiluburua ekitaldi eta bileretara joatea

- Irailak 5. Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) ikasturteari hasiera emateko ekitaldira joatea.
- Irailak 12. Nafarroako Unibertsitate Pribatuan (UNA) ikasturteari hasiera emateko ekitaldira joatea.
- Irailak 17. Nafarroako Parlamentura joatea, neure burua aurkezteko Unai Hualde lehendakariaren aurrean.
- Irailak 20. Gorren Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldira joatea (EUNATE elkartearen jaia).
- Irailak 24. Bideokonferentzia Estatuko Eskola Kontseiluko ordezkariekin, neure burua aurkezteko.
- Irailak 26. GUSTURA proiektuko talde eragilerara joatea. Proiektuaren helburua da bizikidetza komunitarioa neurtzeko tresna bat garatzea.
- Urriak 3. Irunberriko IBPan 2025-2026 ikasturteari hasiera emateko ekitaldira joatea.
- Urriak 4. NABIk sustaturiko "Emakumeak politikan" topaketara joatea, Doneztebera.
- Urriaren 09an elkarrizketa Diario de Navarra egunkariarekin.
- Urriaren 10eko online bilera Autonomia Erkidegoko Parte-hartze Batzordearekin, ikasleek eta haien familiek ikastetxeetan duten parte-hartzea neurtzeko tresnaren aurkezpena, testatzea.
- Urriaren 10ean, SERerako elkarrizketa.
- Urriaren 12an, Guardia Zibilaren eguna ospatzeko ekitaldia.
- Urriaren 15ean, NUPen, Ikasi Katedran, irakas-hizkuntza ez dakiten ikasleen ikaskuntzari buruzko hitzaldia.
- Urriaren 15a, Gurasoen Mahaia.
- Urriaren 19an, Atarrabian, Nafarroa Oinez-en asistentzia.
- Urriaren 20an, bilera Herrikoa elkartarekin.

2. "Ideiagintza suizidaren prebentzioa, detekzioa eta esku-hartzea" monografia

Egun hauetan, "Ideiagintza suizidaren prebentzioa, detekzioa eta esku-hartzea" liburua banatu zaie ikastetxe eta hezkuntza-eragile guztiei, eta, aldizkariarekin batera, kontsultatzeko eskura egonen da Kontseiluaren webgunean, bertsio digitalean.

3. *IDEA* aldizkariaren 59. zk.

Gaur egun webgunean eskura dago, Nafarroako Eskola Kontseiluaren XXXI. Jardunaldietan oinarritua. Jardunaldi horiek maiatzaren 10ean eta 11n egin ziren, "Ideiagintza suizidaren prebentzioa, detekzioa eta esku-hartzea" izenburuaren pean.

4. Nafarroako hezkuntza-sistemaren txostena (NHST)

Txostena hutsetik hasten ari gara; izan ere, datu batzuk non dauden identifikatu eta oraindik iritsi ez direnak eskatu behar dira.

5. 2025-2026 ikasturterako aurrekontuaren aurreproiektua

Oraindik ez da prestatu, kontuak eta egiteke dauden ordainketak eguneratzen ari gara.

6. 2025-2026 ikasturterako lan-planaren zirriborroa

Udalbatzari aurkeztu zaio.